


Ez-finantzazko enpresen aktiboen balioak bikoiztu egiten du Euskal AEko BPG

Aktibo zirkulatzaileak %13,5 batez gainditzen du epe motzeko pasibo zirkulatzailea; epe motzeko zorrak egiteko badira nahiko baliabide.

Euskal AEko ez-finantzazko enpresen zenbatetsitako ondarea 143.737 milioi euro dira; 2006ko BPG 2,3 aldiz, Eustaten datuen arabera. Euskal AEko ez-finantzazko enpresek 794.627 pertsona enplegatzen dituzte, okupatuaren %80,5.

2003-2006 aldian aktiboek izandako hazkundera %35 izan da; ekonomiaren BPGren hazkunde nominala %25 izan da. Ondare hori horrela banatzen da herrialdeen artean: Arabak %17,1; Bizkaiak %53,0 eta %29,9 Gipuzkoak.

Euskal AEko ez-finantzazko enpresen aktibo eta pasiboa 2006.



Iturria: Eustat

Balantzearen aktiboan, Aktibo finkoa %47,4 da, eta Aktibo zirkulatzailea %52,6. Aktibo finkoaren osagarrien artean Ibilgetu materiala nabarmendu behar, %55 delako, eta Ibilgetu finantzarioa, %35. Aktibo zirkulatzailearen barruan bi osagarri nabarmenak dira: Zordunak (%49) eta Izakinak (%26).

Balantzearen Pasiboari begiratuz gero, hona hemen kontu garrantzitsuenak: Baliabide propioak (%39,1); Pasibo zirkulatzailea (%39,1) eta Epe luzerako galdagarria (%21,8). Baliabide propioen artean, bi osagarri nabarmen: Erreserbak (%44) eta Kapital harpidetua (%36).

Ez-Euskal AEko Ez-finantzazko enpresen ondare masa nagusiak. 2006

	EUSKAL AE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Aktibo finkoa	68.131.188	10.831.532	36.852.736	20.446.920
Aktibo zirkulatzaile osoa	75.605.943	13.705.598	39.371.448	22.528.897
-Izakinak	19.561.219	4.301.800	9.369.403	5.890.016
-Erabilgarria	7.073.502	1.102.420	3.685.216	2.285.866
-Bihurgarria	48.971.222	8.301.378	26.316.829	14.353.015
Aktibo osoa	143.737.131	24.537.130	76.224.184	42.975.817
Baliabide propioak	56.200.973	9.847.252	28.490.954	17.862.767
Epe luzeko galdagarria	31.329.357	4.696.438	18.439.833	8.193.086
Pasibo zirkulatzailea	56.206.801	9.993.440	29.293.397	16.919.964
Pasibo osoa	143.737.131	24.537.130	76.224.184	42.975.817
Maniobra-funtsak	19.399.142	3.712.158	10.078.051	5.608.933

Iturria: Eustat

Balantzeak aztertuz gero, **Maniobra-funtsak** (Aktibo zirkulatzailearen eta Pasibo zirkulatzailearen arteko aldea) agerian jartzen du oreka finantzarioa, epe motzerako zorrak (Epe motzerako pasibo galdagarria) kitatzeko nahiko baliabide sortzen baita.

Zorpetze-ratio osoak agerian jartzen du besteren funtsen eta baliabide guztien arteko harremana, eta Euskal AEn %60,9 da; horrek esan nahi du gure aktiboaren ia bi heren besteren baliabideekin finantzatuta daudela.

Errentagarritasun ekonomikoaren ratioa %6,8 da; haien aktibo guztien gainean enpresek lortzen duten batez besteko etekinaren berri ematen du. **Errentagarritasun finantzarioak** enpresek beren funtsen gainean lortzen duten batez besteko etekinaren berri ematen du; Euskal AEko enpresena %13,7 da. Bi ratiook funtsezko hobekuntza izan dute orain lau urteko balioen aldean; %26 eta %38 hazi dira.

Aktiboaren sektoreen arteko banaketa ikusiz gero, garbi ikusten da industriaren garrantzia Euskal AEko ekonomiarako. Aktiboaren %43 industriaren sektorekoak dira, eta hemen ari da enplegatuen %32. Eraikuntzak aktiboaren %9 eta enpleguaren %12 ditu; merkatuko zerbitzuek ondarearen %48 eta enpleguaren %56 dute.

Eraikuntzako enpresen aktiboaren osaketan badira aldeak, industria eta zerbitzuko enpresen ibilgetua aktiboaren %22 da; industrian %49, eta zerbitzuetan %50.

Balantzearen pasiboaren osaketari begiratuz gero, eraikuntzaren epe motzerako zorpetzea %57tik gertu dabil; industriak %37 du eta merkatuko zerbitzuek %38.

Pasiboaren osaketa ezberdin hauen isla da zorpetze osoaren ratioa; eraikuntzan %72,5 da, %58,7 industrian eta %60,6 merkatuko zerbitzuetan.

Sektoreko errentagarritasunari dagokionez: industrian (%7); zerbitzuetan (%6,7); eraikuntzan (%6,5). Kontrakoa gertatzen da errentagarritasun finantzarioan: eraikuntzan (%19,4), industrian (%13,2); zerbitzuetan (%13,5);

METODOLOGI OHARRA Ez-finantzazko enpresen ondare-kontuek balantzeen eta galera eta irabazien kontuen gaineko informazio zehatza ematen dute; lehen sektorea eta bankuak eta aseguruak bazter utzirik, beste jarduera-sektore guztiena.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroetan eta Erregistratzaileen Elkargoan utzitako kontabilitate-egoerak dira estatistika eragiketa honen iturri nagusia. Informazioa lortzen da, baita ere, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saileko Euskadiko Kooperatiben Erregistrotik. 21.000 dira estatistika eragiketa honetan tratatutako kontabilitate-egoerak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

+Tlf:+34-945-01 75 13 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es